

2. Komunikazioa eta lankidetzak

2.1. Teknologia digitalen bidezko interakzioa:

2.1.1. Ondo komunikatzen zara ingurune digitalean?

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala

Komunikazioa eta
lankidetzak.
Teknologia digitalen
bidezko interakzioa

ONDO KOMUNIKATZEN ZARA INGURUNE DIGITALEAN?




CRUE

REBIUN

Red de Bibliotecas Universitarias

HELBURUAK

Jarduera hau egin ondoren, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



LABURPENA

- **Komunikatu beharreko mezua definitu**
- **Zer komunikazio-tresna digital erabiliko dituzun definitu**
- **Aztertu hartzailea**
- **Komunikabide egokia aukeratu**
- **Jasotzen dituzun mezuak iragazi**
- **Komunikazio digitalaren arriskueta pentsatu**

1

KOMUNIKATU BEHARREKO MEZUA DEFINITU

Irakasleari galdera bat egin behar diozu? Liburutegiari iradokizun bat egin behar diozu? Idazkaritzan kexa bat jarri behar duzu? Foro edo sare sozial batean iritzi bat adierazi nahi duzu? Gelan aurkezpen bat egin behar duzu? Zure gelako taldearekin geratu behar duzu?



Pentsatu zer komunikatu nahi duzun eta kontuan izan ingurune digitalean mezuak hedapen handia izan dezakeela.

Ingurune digitalean, komunikazioak irismen handiagoa du.

KOMUNIKAZIORAKO TRESNA DIGITALAK



DEFINIZIOA

Komunikazio digitaleko tresnek teknologia erabiltzen dute elkarrizketarako, eztabaidarako, interakziorako eta **komunikaziorako** bitarteko gisa.

ERABILERA

- Komunikabide gisa, denbora-mugak gainditzen dituzte.
- Edozein arlotako ikerketan, datuak partekatzeko balio dute.
- Hezkuntza-plataforma gisa, ikaskuntza-prozesua dinamizatzeke balio du.
- Eskura jartzen dizkigun jolasekin entretenitzeko erabili daiteke.

FUNTZIOAK

- Erabiltzaileen bizi-kalitatea eta informazioaren kalitatea hobetzen dituzte.
- Elkarreragin azkarra eta eraginkorra ahalbidetzen dute.
- Munduko hainbat lekutatik pertsonen arteko komunikazioa eta harremana errazten dute.

KOMUNIKAZIORAKO TRESNA DIGITALAK

MOTAK

● CMS: eduki digitalak sortzeko eta administratzeko sistemak.



● Sare sozialak eta berehalako mezularitza: erabiltzaileak konektatzen dituzten plataforma digitalak.



● Gizarte-markatzaileak: gogokoen zerrenda sortu eta partekatu sarean.



● Disko birtualak: datu asko gordetzeko eta deskargatzeko aukera ematen dute.



● Streaming-a eta zuzeneko komunikazio-plataformak: bideo-deia edo gertaera bat zuzenean transmititzeko erabiltzen dira.



● 2.0 argitaratzea: interakziorako eta informazioa trukatzeko tresnak.




KOMUNIKAZIORAKO TRESNA DIGITALAK

Badira beste tresna digital batzuk, hertsiki komunikazio-tresnak ez badira ere, ezagutzea garrantzitsua dena:

Multimedia ediziokoek aukera ematen dute egiten dituzun edukien kalitatea aldatzeko, ukituak emateko eta hobetzeko, hala nola Gimp, Photoshop, Canva...



URL laburtzaileak, esteka edo URL luzeak gogoratzen edo aurkezten laguntzeko, Bit.ly eta Ow.ly bezalakoak.



RSS irakurgailuak, eduki-iturrira harpidetu diren erabiltzaileei informazio eguneratua helarazten diete: Google Reader, RSS Reader, BlogLines



3

AZTERTU HARTZAILEA

Hizkuntza
formala edo
informala?

Hizkuntza formala

Irakasleak

Gelakideak

GALekeo tribunaleko kideak

Bibliotekako langileak

Idazkaritzako langileak

Lagunak

Enpresak

Hizkuntza informala

Hartzaile ezberdinak
izango dituzu:



Pentsatu nori zuzentzen ari zaren mezua idatzi aurretik.

Hizkuntza formalaren eta informalaren arteko ezberdintasunak:

Hizkuntza formala

- Sintaxi eta gramatika zuzenak
- Ez du gertutasunik edo makulutxorik
- Formatu ofizila, instituzionala
- Ordena logikoa eta egituratua

Hizkuntza informala

- Adierazkorra, emotiboa, espontaneoa...
- Lagunartekoa, makulutxoak izan ditzake
- Zehaztugabetasunak eta etenak izaten ditu.
- Esaldi laburrak



FORGES. El País, 2004-10-19.

Egoera formaletan

- Hizkuntza egokia erabili
- Hitz eta esamolde zainduak erabili
- Zure mezuaren egitura erabilitako testuaren arabera antolatu (informatiboa, azalpenezkoa, iritzi-testua...)


Egoera informaletan



- Malgutasun eta askatasun handiagoz hitz egiten duzu
- Hitzeko komunikazioaren antza duten emotikonoak eta puntuazio-zeinuak erabiltzen dituzu

3

AZTERTU HARTZAILEA



Egun on,
Miren Agirre naiz, GALa bidaltzen dizut
zuk adierazitako zuzenketekin. Gogoan
izan hilaren 13an, 12:00etan,
Fakultateko 6. eraikinean defendatuko
dudala.
Eskerrik asko eta agur bero bat
Miren

IRAKASLEA

Arratsalde on,
Miren Agirre naiz, zure ikastetxeko
graduiko ikaslea. Esango zenidake
zein den TFGa gordetzeko
prozedura?
Eskerrik asko.
Miren

IDAZKARIA

GAL fsta!!!
Gro ospatzra!!!



LAGUNAK

Bitarteko desberdinetan modu desberdinean espresatzen zara

4

KOMUNIKABIDE EGOKIA AUKERATU

Aurrez aurreko komunikazioa

Keinuak

Eskuen posizioa

Ahotsaren tonua

Begiradak

Hitzik gabeko komunikazioa gure aliatua da!

Komunikazio ez-presentziala

Monosilaboak

Barreak

Tonua

Isiluneak

Gogoan izan zure adierazpena ez dela ikusten

Emotikonoak

Bideoak

Irudiak

Laburdurak

Sare sozialak

Luzeera

Ortografia

Hizkuntza neutroa

Erantsiak

Idatzizko komunikazioa

KOMUNIKABIDE EGOKIA AUKERATU



Hedabideak berak mezuaren jarraibideak aldatu eta markatzen ditu:

- ☞ Sare sozialetan hizkuntza azkarra eta berehalakotasuna da nagusi.
- ☞ Mezu elektronikoa bat idazten badugu, litekeena da hartzaileak berehala ez irakurtzea, gure diskurtsoa zabalagoa da, eta, gutxieneko kontakizun diskurtsibo bat egin behar dugu.
- ☞ Ahozko mezua, aurrez aurre zein telefonoz, espontaneoagoa da, baina beti izan behar dugu gogoan nor den gure hartzailea.
- ☞ Blog edo webgune batean idazten badugu, ez dugu ahaztu behar zein den helburua eta, berriz ere, zein den hartzailea. Horrelako hedabideek gure mezua multimedia-edukiarekin indartzeko aukera ematen digute. Komunikazioa berehalakoa da.

**Kontuz berehalako komunikazioarekin, hartu denbora zer komunikatu
nahi duzun eta zer bide erabiliko duzun pentsatzeko!**

5

JASOTZEN DITUZUN MEZUAK IRAGAZI

Idatzitako guztia ez da egia!

Jarrera kritikoak eta behar bezala iragazteak eraginkortasuna eta segurtasuna ematen dute.

Informazioa (mezuak, webguneak, memeak, publizitatea) egunero eta hainbat kanalen bidez jasotzen duzu	
Jasotzen duzun informazioa iragazteko testuinguruan kokatu:	Pribatua edo argitaragarria, formala edo informala, egiazkoa edo faltsua.
Antolatu zure postontzia:	Karpeta sailkatzaileak, lehenespen-markak...
Zure kontaktuak kudeatu:	Taldeak sortu, blokeatu gogaikarriak, ezezagunak eta publizitarioak, babestu zure pribatutasuna.
Automatizatu mezuen hautaketa, zure irizpideetatik	Nahi ez diren mezuak (spam), bakarrik zabaltzen diren leihoak debekatu, erreprodukzio automatikoak desaktibatu, RSS

Kritikoki pentsa ezazu jasotako mezuen informazioan, iragazteko eta eraginkortasunez antolatzeko



KOMUNIKAZIO DIGITALAREN ARRISKUETAN PENTSATU



- Zure gailuetan
- Komunikazio tresnen erabileran
- Jaso eta bidaltzen dituzun datuetan
- Zure osasunean

Horrela, baliabide digitalen bidez modu seguru eta erosoan komunikatu eta adierazteko aukera izango duzu beti.

KOMUNIKAZIO DIGITALAREN ARRISKUETAN PENTSATU

GAILUAK

- Ez erabili beti pasahitz bera eta aldian-aldian aldatu.
- Kontuan izan eguneraketak eta erabili antibirusa eta firewall-a.
- Segurtasun-konfigurazioa berrikusi.
- Deskonektatu saioa erabilera publikoko gailuak erabiltzen amaitzen duzunean.

TRESNAK

- Pribatutasun-funtzioak erabili eta lehenetsita datozenak aldatu.
- Zuhurtziaz jokatu mezuak jasotzean, igorlea ezagutzen ez baduzu edo erantsitako fitxategiak badauzka.
- Zaindu zure nortasun birtuala eta ikasi hori kudeatzen.

DATUAK

- Informazio pertsonala modurik seguruenean transmititu.
- Egiaztatu online zerbitzuen hornitzaileek zure datu pertsonalen zer erabilera egiten duten.
- Identitatearen ordezkapenaren arriskuez jabetu.

Gogoratu komunikazio digitaleko teknologien erabilera desegokiak osasunean dituen ondorioak (gorputz-jarrerak, pantailen argiztapen handiegia, adikzioak, etab.).



AHOLKU OROKORRAK


Pentsatu zer esan nahi duzun, pentsatu nori esan nahi diozun, berrikusi ezagutzen dituzun interakziorako bitarteko elektroniko guztiak, aukeratu egokiena eta komunikatu.

Mezua nori
zuzenduta dago

Pentsatu zer
esan nahi duzun

Aukeratu
komunikabide
egokiena

Zure mezua
idatzi



GEHIAGO JAKITEKO...

- 👁️ Corral, K., y Sánchez, E. (2014). Uso, clasificación y funciones de las herramientas digitales . [linean] [2020ko abenduaren 9an aipatua]. Erabilgarri: http://eduteka.icesi.edu.co/gp/upload/tarea_2._uso_clasificacion_y_funciones_de_la_herramientas_digitales.pdf
- 👁️ Universidad Católica de Valencia. Ventajas y desventajas de las redes sociales en la educación. [linean] [2020ko abenduaren 9an aipatua]. Erabilgarri: <https://online.ucv.es/marketing/ventajas-y-desventajas-de-las-redes-sociales-en-la-educacion/>





**Mondragon
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



Basque Culinary Center

Biblioteka

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101
20009, Donostia, Gipuzkoa.
T. 943574514
biblioteca@bculinary.com

Enpresa Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Ibarra Zelaia, 2
20560, Oñati, Gipuzkoa.
T. 943718009
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Dorleta, z/g.
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.
T. 943714157
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

Goi Eskola Politeknikoa

Biblioteka

Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.
T. 943794700
biblioteca.mgep@mondragon.edu